

BERRIAren iazko **Igandea**-k, 20 azaletan

(https://oasc-eu1.247realmedia.com/5c/berria.info/albistek/L21/2079805815/Top/Iragarri/B_PROMO_IGANDEETAKO)


(<https://www.berria.eus/bilatzailea/>)

(<https://www.berria.eus/estilo-iruzkia/>)

- Gizartea (<https://www.berria.eus/gizartea>)
- Politika (<https://www.berria.eus/politika>)
- Ekonomia (<https://www.berria.eus/ekonomia>)
- Mundua (<https://www.berria.eus/mundua>)
- Iritzia (<https://www.berria.eus/iritzia>)
- Kultura (<https://www.berria.eus/kultura>)
- Kirola (<https://www.berria.eus/kirola>)
- Bizigiro (<https://www.berria.eus/bizigiro>)
- Berria TB (<https://www.berria.eus/berriatb/>)

Hasiera

(<https://www.berria.eus/>)

/

Bizigiro

(<https://www.berria.eus/bizigiro>)

Bizigiro

(<https://www.berria.eus/bizigiro>)

Uzta dastatzeko zita

Zaporeak proiektuak irekiko du, gaur, Hernaniko sagardo garaia. Kalitatez eta kantitatez «aspaldiko uztarik onena» dela diote ekoizleek



Itziar

Ugarte

Irizar

(https://www.berria.eus/egileak/Itziar_Ugarte_Irizar)



Hernaniko txotx garaiaren hasiera, iaz, Paco

Etxeberriarekin.  JON URBE / ARGAZKI PRESS 

Gonbidapenak

Ikusi al dituzu Guggenheimeko erakusketa berriak?



(<https://oasc-eu1.247realmedia.com/5c/berria>)

Informazio

osagarria

2018ko urtarrilak 13



EGITARAUA

(<https://www.facebook.com/sharer/sharer.php?>

([https://www.berria.eus/paperekoa/3857/043/005/2018-](https://www.berria.eus/paperekoa/3857/043/005/2018-01-13/egitaraua.htm)

[https://www.berria.eus/paperekoa/1872/043/001/2018-](https://www.berria.eus/paperekoa/1872/043/001/2018-01-13/uzta_dastatzeko_zita.htm)

[01-](https://www.berria.eus/paperekoa/1872/043/001/2018-01-13/uzta_dastatzeko_zita.htm)

[01-](https://www.berria.eus/paperekoa/1872/043/001/2018-01-13/uzta_dastatzeko_zita.htm)

[13/egitaraua.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1872/043/001/2018-01-13/uzta_dastatzeko_zita.htm))

[13/uzta_dastatzeko_zita.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1872/043/001/2018-01-13/uzta_dastatzeko_zita.htm))



(<https://twitter.com/share>)  0

([https://www.berria.eus/paperekoa/1872/043/001/2018-](https://www.berria.eus/paperekoa/1872/043/001/2018-01-13/uzta_dastatzeko_zita.htm#disqus_thread)

[01-](https://www.berria.eus/paperekoa/1872/043/001/2018-01-13/uzta_dastatzeko_zita.htm#disqus_thread)

[13/uzta_dastatzeko_zita.htm#disqus_thread](https://www.berria.eus/paperekoa/1872/043/001/2018-01-13/uzta_dastatzeko_zita.htm#disqus_thread)).



(<https://www.berria.eus/berrialaguna/login>)



«Uzta oso ona izan da, bai kantitatez, eta bai kalitatez; oso ona dator sagardo berria». Gaur dute txotx irekiera Hernanin (Gipuzkoa), eta aurten jasotakoarekin aseta dagoela nabari zaio gaurko festaren antolatzaileetako bati, Akarregi sagardotegiko nagusi Jon Peñari. Urtero bezala, udaletxean egingo dute txotx irekiera, 13:00ean. Hori izango da herritarrei sagardo berria aurkezteko ordua, eta eguneko ekitaldi nagusia. Zaporeak proiektuak irekiko du aurten denboraldia.

Gaur egun, hamabi sagardotegi daude Hernanin. Tradizioak tradizio, sagardoak oraindik ere jende asko mugitzen du, Peñak dioenez. «Hernaniko sagardogileentzat oso egun polita da gaurkoa; azken finean, sagardogile guztiak juntatzen gara, eta urte guztian egindako lana erakusten dugu».

Uztarekin ez dago sekula jakiterik, baina aurtengoa «aspaldiko onena» da, eguraldiari eta, batez ere, iazko uda onari esker, Peñaren ustetan. Halaber, hemengo sagarraren igoera azpimarratu du: «Aurten, bertako sagarra, jatorri izenekoa, asko ugaritu da, eta azken urteetako sagardorik onena ekarri du». Iaz

sortu zen Euskal Sagardoa jatorri izena, eta aurten, denera, 47 sagardotegi batu dira sor-markara. «Bultzada handia» izan dela kontatu du Peñak. «Jatorri izena oso ondo etorri da bertako ekoizleek sagardoa bertako sagarrarekin egin ahal izateko», azaldu du. Plazan bi upel bete sagardo berri jarriko dituzte, eta pintxoak ere izango dira edanarekin batera hartzeko.

Zaporeak-i omenaldia

Txotx irekiera egin aurretik, aurtengo gonbidatuei, Zaporeak proiektuko kideei, harrera egingo diete udaletxean. Erabaki hori Txotx Mahaiaren esku egoten dela zehaztu du Peñak: «Udaletxeko jendea, herritarrak, tabernariak, sagardogileak... denen artean hartutako erabaki bat izaten da».

Etiohiako Wikio herriarekin senidetuts dago iruzkinak Komunitatea **Sagardoa** hasi Hernani, eta, hain justu, han hasi zuen jarduna **Gomendatu** **Partekatu** **Berrietik hasita** Zaporeak ekimenak, enkadura eta sukaldaritzako proiektuak sustatzen. Azken **Hasi eztabaida** boladan, Greziako Kios irlan larri dauden errefuxiatuentzako lanean ari da taldea. Gaur, **HASI SAIOA HONEKIN** Hernaniko txotx garaia irekitzean, haien jarduna omenduko dute.

EDO ERREGISTRATU DISQUS-EKIN ?

Sagardo irekiera

Izena

Gaur, 12:00etan, Hernanin (Gipuzkoa)

Irakurle agurgarria:

Egin lehen iruzkina.

Honaino iritsi zarenez, eskaera bat egin nahi dizugu:

irakurtzen ari zaren edukia eta egunkaria babestea, konpromiso ekonomikoa hartuz. Publizitatea eta

erakundeen diru-laguntzak ez dira nahikoa BERRIaren

etorkizuna bermatzeko. Sarean eskaintzen dizugun

edukia irakurtzen duzuen milaka irakurleek proiektuari

ekarpena eginda, urrutira iritsiko ginateke.

